

1185/2022 EBAZPENA, ekainaren 21ekoa, Bilbo-Basurtuko ESIko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Bilbo-Basurtuko ESIko Neumologia Interbentzionistako Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den

### AURREKARIAK

Bilbo-Basurtuko ESIko zuzendari gerentearen martxoaren 22ko 462/2022 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Bilbo-Basurtuko ESIko Neumologiako Atal Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko apirilaren 27ko EHAA 81 zk. eta 2022ko maiatzaren 3ko BOE 105 zk.).

Bilbo-Basurtuko ESIko zuzendari gerentearen maiatzaren 5eko 718/2022 Ebazpenaren bidez (2022ko maiatzaren 19ko EHAA 96 zk. eta 2022ko maiatzaren 24ko BOE 105 zk.), zuzendu egin du martxoaren 22ko 462/2022 Ebazpenean lehiaketarako deitutako lanpostuaren izendapena, arlo kliniko zehaztuz. Hala izendapen hau izatera igaro zen: Neumologia Interbentzionistako Atal Sanitarioko burua.

Deialdian aurreikusitakoaren arabera, Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko maiatzaren 24an amaitu zen.

Akatsaren izaerak hautagaien aurkezpenean eragina izan dezakeela ikusita, eskabideak aurkezteko beste epe bar irekitzen da, 15 egun balioduneko hain justu, maiatzaren 5eko 718/2022 Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken egunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko ekainaren 14an amaitu da.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Bilbo-Basurtuko ESIko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bilbo-Basurtuko ESIko Neumologia Intebentzionistako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina)



**Osakidetza**

**BILBO-BASURTU ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA**  
**ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO**

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Bilbo-Basurtu ESiko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Bilbon, 2022ko ekainaren 21ean.

Bilbo-Basurtu ESiko zuzendari gerentea,  
**JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO**



Osakidetza

BILBO-BASURTU ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO

**ZUZENDARI GERENTE**  
**DIRECTOR GERENTE**

Izpt/Fdo.: Jesús Larrañaga Garitano

## I. ERANSKINA

### NEUMOLOGIA INTERBENTZIONISTAKO ATAL SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Igor Iturbe Leal jauna.
- María Victoria Leal Arranz andrea.
- Raquel Sanchez Juez andrea.

Baztertuak:

- Inor ez.

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.